



Abiatu da Koronabirusaren ikasturtea

Eskualdeko ikastetxetan segurtasun eta prebentzio neurri zorrotzak betetzen ari dira / 8-9

Andoaingo Jabekuntza Eskola martxan

Andoaingo Udalak laster zabalduko du herri osoan Jabekuntza Eskolaren egitarau zabala. Berdintasunean sakontzeko tailerrak, hitzaldiak eta ikastaroak dira / 7



**Maila bikaina
erakutsita,
Julen Gabirondo
Euskal Pentatloieko
finalera sailkatu da** / 13



**Eskalatzeko
gune egokiak
Leitzaran bailaran
eta Adarramendi
inguruan** / 10-11



**Gipuzkoako
Sagardozaleen eta
Ostalarien elkarteak
bat eginda, sagardoa
sustatzeko asmoz** / 2



Sagardogileen erronka berriak

Gipuzkoako Sagardogileen elkartearentzat iraila hilabete garrantzitsua da, besteak beste hiru ekitaldi handi antolatzen dituztelako: Donostiako Sagardo Eguna, Ordiziakoa eta Euskal Herriko Txapelketa Herrikoa. Sagardoa ekoizteko garaia da, bide batez



Kanpaina berriaren aurkezpen ekitaldia Trinitate enparantzan. SAGARDOROUTE

Erredakzioa ANDOAIN

Ez da etsitzeko garaia eta sagardogileen elkarrekin bide berriak urratu ditu. Oraingoan Gipuzkoako Ostalarien elkarrekin batera. Aste honetan hasi eta irailaren 26ra bitarte, Gipuzkoako berrogei taberna eta jatetxetan sagardozaleek sariez gozatzeko aukera izango dute. Erronka berriak bilatu behar dira, eta sagardozaleak ekimen betean agertu dira: "Aurtengo urtea zaila izan da sektorean, eta oraindik ere gelditzen dira hilabete batzuk pandemiaren eboluzioa zertan den ikusteko. Baina gure aldetik, ahal dugun guztia egingo dugu gure taberna, jatetxe eta sagardotegiak seguruak izan daitezen".

Adierazpen horiek irailaren 8an egin zituzten Donostiako Trinitate plazan.

Sagardo berriaren ekoizpena hastear da

Sagardoa ekoizten hasiko dira egun hauetan sagardogileak, uztia berriari heldu eta datozen hilabeteetan zehar sagardo berria egiteko. Elkarrekin honako analisia egin du: "Aurtengo uztia

iazkoa baino txikiago espero dugu kopuruz, baina kalitate handikoa".

Garai hau, bestalde, egokia da bisita gidatua sagardotegietan egiteko. Bertan sagardoa nola egiten duten ikustez gain, prozesu osoa bertatik bertara eza-gutzeko aukera izaten da. Bisita sagardotegia otorduan eginez borobildu daiteke gainera eta nahi duenak, asteburu pasa ere egin ahal izango du. Informazio gehiago sagardoa.eus webgunean aurki daiteke.

Sagardotegiak momentu honetan egungo segurtasun irizpideak jarraituz ari dira kanpaina hasiera prestatzen. Sagar biltza lanak hasi dituzte batzuk eta iraila bukaeran hasiko dituzte gainerakoek. Sagastiak garbitu eta hornitzaileak hasiko dira sagarra ekartzen. Hauek garbitu, jo eta tolaean zanpatuko dira. Ziklo bakoitzaren ondoren ateratzen den muztioa joango da kupeletara, irakinaldia has dadin. Hala, urtarrila aldera dastatu ahal izango dugu txotxean, 2020ko uztia berria eta udaberritik aurrera izango dira botilan 2020ko uztako lehen Euskal Sagardoak.

**AEKn, IRAKASLE BATEK
BIK BESTE BALIO DU.**

Irakasten daki eta
ikas dezazun nahi du.



Irakasle Urteagaitz Aizpuruak AEK-ko irakasketa



EUSKARA - IKASTAROAK

2020 / 2021



Aurrez aurreko eskolak



Online



Autoikaskuntza



Itzulpenak-Zuzenketak



Normalizazio-planak



Barnetegiak



Mintzapraktika



BAZU! aldizkaria

Urnietako AEK euskaltegia

Matrikula-epea: Irailaren 1etik 25era

Maila guztiak: A0, A1, A2, B1, B2, C1, C2

ESKAINTZA ZABALA

- Aurrez aurreko taldeak eta autoikaskuntza
- Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak
- Guraso taldeak
- Etorkinentzako AISA ikastaroak

Matrikulazioa eta informazioa

URNIETA

Errekalde kalea 1. 662 338 747. urnieta@aek.eus

DIRULAGUNTZA: Urnietako Udalaren dirulaguntza

Matrikularen %100 izango da, gehienez, langabetuentzat eta %85, gehienez, lanean ari direnentzat



Aeroyoga eskaintzeko prest daude Kulunka Yogako instalakuntzak. KULUNKA

Kulunka aeroyoga zentroa, ikasturte berrirako prest

Ikasturte berria irailaren 7an abiaratuko da, segurtasun eta prebentzio neurri guztiak hartuta

Kulunka Aeroyoga
Babestutako edukia
ANDOAIN

Kulunka Aeroyoga zentroa ibilbide oparoa osatzen ari da. Bezero kopuru finkoa du, eta esperientzia zabal. Hastear den ikasturtean Yogan edo Aeroyogan proba egiteko aukera bikaina dago, Andoainen bertan.

Nola sortu zen Kulunka Yoga?

Eider Hidalgo. Duela 12 urte, bizitzan ari nintzen une pertsonalaren ondorioz, Yoga jarduera ezberdinak praktikatzan hasi nintzen. Horrek niregan aldaketa handia eragin zuen. 2012an Aeroyoga formakuntza egin nuen, hura baitzen gehien asetzen ninduen.

Zergatik Aeroyoga?

EH. Yoga klasikoaren oinarriak eustez gain, Aeroyogak atak dibertigarri, erronkadun eta akrobatikoak eskaintzen dituelako.

Eta zertan datza?

EH. Sabaira iltzatutako telazko kolunpio batzuekin egiten den Yoga jarduera ezberdinen konbinazio bat da. Yogak orokorrean onura asko eskaintzen dizkigu. Kolunpioek mugimendu leun eta jarraikorra ahalbidetzen digute, malgutasuna, indarra, oreka eta erresistentzia landu eta indartzeko aukera eskainiz. **Aeroyogaz gain, beste zerbitzurik eskaintzen al duzue?**



EH. Nahiz eta gure jardunaren zati handi bat Aeroyogan enfokaturik egon, badira bai, eskaintzen ditugun beste zerbitzu batzuk. Besteak beste, Haurrentzako Yoga eta Aeroyoga tailerra. Masaje tailandiarra ere eskaintzen dugu, masaje mota honi Yoga pasiboa deitzen diote. Gorputzari onura asko ematen dizkio.

Zer esango zenieke ezagutu nahi dutenei?

EH. Jendea animatu nahiko nuke Aeroyoga probatzera. Denok behar dugu kanpoaldearekiko deskonexio bat eta gure arnasketarekin eta praktikak sortzen dituen sentazio fisikoekin konexio bat. Klasearen ondoren geratzen den sentazio on hori gure baitan sentitzeak merezi du.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Eider Hidalgo.
680 380 784.
www.kulunka.eus
Ondarreta Kalea, 1.
Andoain.



NutriEskolaren egoitza, tailerrak egiten diren gune erakargarria. NUTRIESKOLA

Elikadura osasuntsua eskolaz kanpoko jardueran

Ondo jaten ikasteko aukera paregabea, sukaldean gailtzen bitartean

NutriEskola
Babestutako edukia
ANDOAIN

NutriEskolan izena ematen duten haur eta gazteek, tarte bikaina igarotzeaz gain, sukaldean aritzen ikasiko dute. Astero erre-zeta ezberdinak egingo ditugu. Elikagai berri pila bat sukaldeatuko ditugu, haurrentzat saio erakargarria eta dibertigarria bilakatzuz. Jolas egingo dugu, elikagaiekin esperimentuak egingo ditugu eta tarte atsegina igaroko dugu, beti ere sukaldearen inguruan.

Gozo osasungarriak, pasta, lekaleak, barazkiak... astero etxera eramango dute NutriEskolako sukaldean egin duguna. Etxean dastatzeaz gain, berriro egiteko aukera izango dute ikasleei erre-zeta emango baitzaie.

Ikasturtearen amaieran, baldintzak betetzen badira, haurrek euren gurasoentzat merienda prestatuko dute. Azken saio horretan diploma bana emango diegu.

COVID-19ak ezarritako protokoloa

Indarrean dagoen araudiaren arabera segurtasun protokoloak beteko dira. Koronabirusaren eraginez zehazten diren neurriak ezarri dira ikasturtearen hasieran, besteak beste, segurtasun distantziari, garbitasunari eta maskarilen erabilerari dagokionez. Gaurko egunez, taldeak 7 lagunekoak izango dira soilik.

Informazio gehiago

Adina: 6-13 urte.
Maiztasuna: Astean behin.
Iraupena: Ordubete.
Aukerak: Astelehena edo osteguna.
Ordutegia: 17:00-18:00 edo 18:15-19:15.
Prezioa: 48 euro, hileko.
Matrikulaz: 25 eurokoa, ikasle berrien kasuan.

MATRIKULAZIOA:

Carola Tellez.
633 24 85 81.
consulta@nutrieskola.com
www.nutrieskola.com
Zumea 22, behe.
Andoain.



Urnietako Etxeberri plazan dago ikasketa zentroa. IKASMIN

Ikasmin ikasketa zentroa, ikasturte berrirako prest

Esperientziak emandako eskarmentuari esker, denboraldi berriari ekiteko prest daude

Ikasmin
Babestutako edukia
URNIETA

Ikasmin ikasketa zentroa ikasturte berriak ezarri dituen erronka guztiei aurre egiteko prest dago. Segurtasun eta prebentzio neurriak betez, aurrera egin daitekeelako. Jakintzan eta ezagutza sakontzea garrantzitsua baita, bizitzan aurrera egin nahi bada. Isaac Newtonen goiburua erabiliz, "dakiguna ur ttantta bat da; ez dakiguna ozeanoa da".

Hezkuntzaren esparruan eskarmentu handia du Urnietako akademiak, eta garatu duen eskaintza oparoa da. Alor ezberdinetan, gainera.

Errefortzua

LH, DBH, Ingeniaritzak, Oposaketak..., errefortzu klase horiek banaka eskainiko dira.

Hizkuntzak

Euskara (EGA prestaketa), Gaztelera, Ingelesa (Azterketen prestaketa), Frantzesia eta Alemana. Eskolak banaka edo taldeka eskainiko dira. Beti ere, gehieze, lau lagun elkartuta.

Lan taldeak

• "Matematika ez da monstrotu bat!" (Astean ordu bat. LH, DBH).



• "Irakurtzeak nahi duan mundura bidaiatzera narama!" (Astean ordu bat. LH, DBH).

Tailerrak:

• "Google tresnak zure neurritik": Guraso, irakasle, ikasle edo behar duenari zuzenduta (banaka).
• Programatzen ikasi: AppInventor, logika garatzeko (4ko taldeak).
• Alemana ikasi, jolastuz eta abestuz (4ko taldeak. Haurrak).
• Informatika zure neurritik (Banaka).
• OnLine klaseak antolatu eta prestatu (Banaka).

MATRIKULAZIOA:

645 991 362.
info@ikasmin.com.
www.ikasmin.com.
Instagram:@ikasmin.
Facebook: facebook.com/Ikasmin.
Etxeberri plaza, 7.
Urniet.



POSTONTZIA

MARCE GARCIA EUSKADIKO ETA ESTATU MAILAKO KALERATZEEI STOP ETXEBIZITZA BATZORDEKO KIDEA

Okupazioaren arazoa

Inguruan gertatzen dena baloratu aurretik behar bezala informatzeaz arduratzen den irakurle estimatu horri: gutun honen helburua komunikabide batzuek erakusten diotenaz bestelako ikuspegi bat ematea da, PAH (Hipotekak Kaltetutakoen Plataforma) elkartearena hain zuzen. Hots, lehen arazo bat zena eta, uda honetan, pandemiarekin batera, herrialde honetako "arazo" bihurtzen ari den okupazioaz ari naiz.

Egun hauetan ikusten ari garen bonbardaketa mediatikoaren atzean ezkututzen diren benetako arrazoiei buruz idatzi nahi dut.

Azalpenarekin hasteko, esan behar dugu gaur egun frogatuta dagoela defendatzen ditugun ehunka mila familia bidegabeki bota zituztela beren etxebizitzetatik, haien bizitzak txikituz, poliziak beren etxebizitzak bortxaz usurpatuz eta okupatuz, bizitzeko alternatibarik eskaini gabe; eta guzti hori herrialde honetako epaileen eta politikarien adostasunarekin.

Hainbat urtetako borrokak, bidegabekeriak eta sufrimenduak argi eta garbi frogatu dute gaur egun milaka familia horiek etxetik bota zituztela 1 eta 3 kuota arteko gutxienekoa ez-ordaintzeengatik (eta horren froga da, gaur egun, Europako Justiziak ez ordaintzeko epe hori 12 hilabetera gehitza

behartu duela Espainia, legez kanpoko iraganeko jarrera agerian utziz. Horrez gain, geroago egiaztatu da Bankuek, epaileek eta gobernuek hitzarmenetan Abusuen aurkako Europako Zuzentarauak bete izan balituzte, etxegabeteak saihesteaz gain, bankuek milaka edo dozenaka mila euro itzuli beharko zizkietela, hipoteketan gehiegizko klausulak ezarri zituztelako.

Eta ziur diot herri honetako demokraziaren bidegabekeria eta lotsarik handienez partaide eta erantzule izan zirela Bankuak lehenik, gure hipoteketan mota guztietako abusuak sartu eta horiekin milaka milioiko iruzurra egiteagatik; bigarrenik, Gobernu ezberdinak eta Espainiako Bankua, banku horiek ez baitzituzten ikuskatu, zaindu edo zigortu abusuak agerian geratu zirenean; eta azkenik, Justizia edo, hobeto esanda, herrialde honetako injustizia, Epaitegi Gorena buru delarik, izan ere, milaka familien bizitzaren edo bankuen onuren artean aukeratu behar izan zuenean bai baitakigu noren alde egin zuen (Europako Justiziak lotsagarriki zuzendu zuen).

Baina familia horiek jasan zuten ankerkeria bidegabean gehiago sakontzeko, esan behar da beren etxebizitza galtzeaz gain, beste injustizia jasan behar izan zutela: betiko

zordun gisa geratu ziren berandutze-interesengatik eta gehiegizko kostu judizialengatik; Hori gutxi ez, eta gainera, ikusi zuten Bankuak nola egiten zuen mendeko negozioa beren etxebizitzarekin, enkantean esleitzuz bere balioaren erdiagatik; beste erdia, zor gisa familiaren bizkar geratzen zen.

Uste duzu gaur egun lotsa handi hori behar bezala konpondu dela eta familia horien bizitza suntsitzeak eragindako kalte handia lehengoratu dela? Uste duzu sufrimendu horren guztiaren erantzuleetako batek publikoki barkamena eskatu diela kaltetuei? Ez dute hori egin, eta, gainera, familiak hondoratzen jarraitu dute, beren etxea bankuek Putre-Funtsei oparitzen zieten, haiek zor ziotena baino gutxiagoren truke, edo hutsik zegoela, haiei beste bizilekurik eskaintzen ez zieten bitartean.

Baina zigor eta injustizia guzti hau nahikoa ez bazen ere, zu irakurle maitea eta herri honetako herritar guztiok harrituta ikusi behar izan dugu duintasunik gabeko Gobernu ustel batek, beste alderdi batzuekin batera, Aurrezki Kutxen Administrazio Kontseiluetan nola sortzen zuten mila milioiko zuloa, eta nola zulo horiek estaltzen zituzten gure zerga, erretiro, osasuna, hezkuntza eta gainerako

zerbitzu publikoen diru publikoekin. Aurrezki Kutxa horiek onbideratu ostean, Bankuei oparitu zizkien, eta trukean ezer eskatu gabe. Bankuek argi eta garbi adierazi dute jaso dutenetik ezer ez digutela itzuliko.

Zer gehiago jasan behar dugu erreakzionatzeko?

Zuzenbidean lizentziaduna naizen arren, bidegabekeria horiek salatzen lan egiten dut, eta defendatzen ditudan familien egoeran banengo, harrotasunez eta duintasunez okupatuko nuke haiek kendu zizkiguten Banku eta Putre-Funtsen etxebizitza hutsetako bat, nire ustez, horietako asko gureak direla uste baitut, erreskatearen ordainetan.

Horregatik, arrazoi asko dauzkagula uste dudalako, Legeak usurpazio-delitutzat jotzen duena ez betetzea defendatzen dut, nahiz eta Zuzenbidean lizentziaduna izan.

Izan ere, bidegabekeria eta pobrezia kriminalizatzen dituzten lege bidegabean aurka borrokatzen dut, ez delako familien atzean dagoen egoera aztertzen.

Hona heldurik, okupazioari buruz dugun jarrrerari ekin behar diogu. Jakina, lehenbailehen salatu eta kanporatu behar dira mafiak, delitugileak, lotsagabeak eta gure gizartea arautzen duten eta partikularren etxebizitzak -ohikoak edo bigarrenak-

okupatzen dituzten errespetuan eta bizikidetzan oinarritzen diren arauak errespetatzen ez dituztenak.

Baina argitasun eta irmotasun berarekin, zera diogu: banku, Putre-Funtsa, Sareb eta bertan abandonatutako eraikinen etxebizitza hutsak okupatzea defendatzeaz gain, okupatzeko gure modua publikoa izan dela, "PAHren obra soziala" izenekoa; orain arte gure webgunean eskuragarri zegoen eskuliburu batean jasotzen da hori. Higiezinaren iruzurraren biktimak defendatzeko gizarte-salaketa bat da hori, eta biktima horiek ez dira gaizkileak, Espainian hutsik dauden milioika etxebizitza hutsten artetik sabai bat baino bilatzen ez duten familiak baizik.

Gure jarrera eta haren oinarri diren arrazoiak argi eta garbi azaldu ondoren, argi pixka bat eskainiko dizut, irakurle. Alegia, uda honetan zergatik ari garen bonbardaketa mediatikoa jasaten joera ideologiko argia duten hedabide jakin batzuen aldetik; horiei, beste batzuk ere gehitzen zaizkie sentsazionalismoa itsatsiz okupazioaren arazoari.

Okupazioaren fenomenoak ez da arazo berria, nahiz eta, aurreko azalpenean ikusi dugun bezala, areagotu egin den krisiarekin eta Espainiako pobrezia-aren gorakadarekin.



Aiurri eskuragarri:
Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urmietan).
Disenua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia:
disenua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 5.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.



Fenomenoa eraikin abandonatuak zituzten gure herrietan ikusten genuen gutxi gorabehera, eta onartzen genuen, betiere, bizikidetza errespetatzen bazen eta inguruan indarkeriarik eta delinkuentziarik ez bazegoen.

Espainiako Estadistika Institutua (INE) erakundearentzat familia-etxebizitza hutsa da pertsona baten ohiko bizilekua ez denean, eta inork urte-sasoiko, aldizkako edo noizean behin erabiltzen ez duenean. Espainian, erroldaren arabera, 3.443.365 etxebizitza hutsik daude.

Ez dago etxebizitza okupatuen datu fidagarririk, baina Cerdá Institutuaren arabera, 100.000 etxebizitza dira denera eta horietatik 80.000 inguru bankuen jabetzakoak dira. Beraz, zein da herri honen arazo nagusia? Gaitzesgarria den partikularren etxebizitzak okupatzea? Ala, 80.000 familiak, asko seme-alaba txikiagoekin eta baldintza sozial guztiekin, delitu bat egin behar izatea, hau da, bankuen pisuak okupatzea, beren zergekin mantendu dituzten eta babestu behar zituzten erakundeek bertan behera utzi dituztenean bizi-irauteko?

Arazo bat zein bestea konpondu behar dira, baina okupazioari buruzko gaur egungo mugimenduak nora doaz? Nondik sortu da kanpaina hori, magistratuen elkarteek ere ez dutenean uste 2018ko legea aldatu behar denik, baizik eta eskatzen dutenean epaitegiei baliabide gehiago ematea motelak izan ez daitezen?

Kaleratzeak publikoki salatzeke eta galarazteke modua ez ezik, gure 'Gizarte Ekintza'ren eskutik bankuen eraikinen jendaurreko okupazioak beti izan dira gogaikarriak Bankuentzat eta Putre-Funtsentzat. Ekintza horiek beren gertuko alderdien bidez geldiarazten saiatu dira,

eta horren emaitza izan zen Mozal Legea; lege horrek kaleratzei aurre egiteko ekintzak isun gogorren bidez zigortzen ditu, eta hainbat talde kidek jasan behar izan dituzte.

Bankuei eta Putre-Funtsei bidea libre uzteko, Okupazio guztiak kriminalizatzen eta Gizarte Ekintza deusezten saiatzea zen. Horretarako aitzakiak, hona: lehenbailehen kanporatzea oporretara zoazenean zure etxean sartzen ziren eskrupulurik gabeko pertsona horiek, erosketak egitera kalera atera eta itzultzean etxean jendearekin topo egiten duen adinekoa babestea, eta, narko-etxeen ugalketaren aurka egitea.

Lehenengo saiakera, 2018an egin zen, Etxegabetzei buruzko lege express baten bidez. Lege horrek egunez edo astez arindu egiten zituen etxegabetzeak, eta, gure presioaren ondorioz, Banku eta Putre-Funtsen etxebizitzak aplikaziotik kanpo utzi zituen. Horrek sutan jarri zituen, eta harrez gero ez dute atsedunik hartu gure Gizarte-Ekintza deusezteko ahaleginean.

Geroztik, lasaiago diseinatu dute beren estrategia. Horretarako, berriro martxan jarri zituzten beren aldeko zerbitzariak, Kongresuan okupazioaren aurkako lege proposamenak aurkez zituzten. Proposamen horiek Ciudadanosek eta PPK aurkeztu zituzten uztailean, eta lagungarri gisa kanpaina mediatiko indartsu bati ekin zioten. Horrela, kasu lazgarriaz baliatu ziren herritarrek beldurra izan zezaten edozein unetan etxetik irten eta itzultzean etxean baten bat aurkitzeko. Kanpaina horren ondorioak dagoeneko ikusten ari gara; eta, gainera, hainbat baldintzatako okupen aurka arrautzak eta harriak botatzen ari gara, etxeetatik kanporatzeko. Beldurraren estrategiak eta kanpaina

mediatikoak bidea erraztu diete legeei.

Erasoa orain indartsuagoa eta arriskutsuagoa da; izan ere, alderdi horiek, C's eta PP hain zuzen ere –ziur nago laster Vox batuko zaiela–, eskuinean nor dagoen ikusteko borrokan ari dira, eta okupatzaile guztiak kriminalizatzen ari dira, bereizi gabe beren egoera nahiz seme-alaba adingabeak dituzten ala ez. Horrek Giza Eskubideei buruzko Espainiako eta Europako Legeak urratzen ditu, baita Auzitegi Gorenaren beraren doktrina ere, eta, gainera, espetxe-zigorrak ezartzen dizkiete. Eta hara hor ezustea! Ez dute bereizten partikularren edo bankuen etxebizitzaren artean. Horrek denak, pobrezia kriminalizatzeke eta giza eskubideak urratzeke estrategia argia izateaz gain, argi eta garbi uzten du nork zuzentzen duen kanpaina mediatiko hori.

Denak zaku berean sartuz pobrezia kriminalizatzeke Populismoaren estrategia arriskutsu horri gehitu behar dizkiogu pandemia ekonomiara langabezia moduan ekartzen ari den ondorio suntsitzaileak (hipoteken eta alokairuen ez-ordaintze masiboak dira horietako batzuk).

Zu, irakurle, horietakoa bazara –edonor izan badaiteke–, joan zaitez lo egiteko lekua hartzen kutxazainen batean edo zubi baten azpian. Edo oso deseginda bazaude, okupa ezazu. Kartzelan, gutxienez, sabaia eta elikagaiak ziurtatuta izango baitituzu, barkatzen badidazu ironia. Politikari horiek arreata gehiago jartzen badute gure benetako arazoak konpontzera –horretarako ongi baino hobeto ordaintzen baitiegu–, babesa emango diegu. Baina pobrezia kriminalizatu nahi badute gorbatahun gaizkileei laguntzeko, beti aurkituko gaituzte aurrean.

**POBREZIA
KRIMINALIZATU
NAHI BADUTE, BETI
AURKITUKO GAITUZTE
AURREAN**

**FROGATUTA DAGO
MILAKA FAMILIA
BIDEGABEKI BOTA
ZITUZTELA EUREN
ETXEBIZITZETATIK**

**LEGEAK
USURPAZIO
DELITUTZAT JOTZEN
DUENA EZ BETETZEA
DEFENDATZEN DUT**



IRITZIA

XABIER LASA OROITUZ, ANDOAINEN ELKARTEKO KIDEA

Rodolfo Martin Villa

Jendetza bildu ginen Iruñeko Justizia Jauregian ostegunean, ministro frankista ohiak Maria Servini epaile argentinarraren aurrean deklaratu behar zuen egun berean. Antifrankismoan militatutako lagun ugari topa zitezkeen elkarretaratzean; polizia torturatutakoak, Gasteizeko martxoak 3ko bost langileen, Joseba Barandiaran edo German Rodriguezen, eta, trantsizioan zehar indar polizialek edo parapolizialek eraildako 90 pertsonen senide eta adiskideak, memoria historiko antifrankista jorratzen duten elkarteetako kideak, edo eta, besterik gabe, 45 urtetan batere aplikatu ez diren egia eta justizia eskatzen dituzten herritarrak.

Ez da makala Martin Villaren deklarazioak gizartean eragin duen ikusmina, eta horren lekuko Iruñera hurbildutako makina bat komunikabide. Sentimendu biziak -gorputz dardara, askori- pizten segitzen baitu morroi horren aipamen hutsak.

Martin Villak aro historiko jakin bat erretratatzan digu. Diktaduraren hondarrean, sektore elitistenean (politikoe, enpresarioek, kazetariak, militarrek, indar polizialek...) trantsizio politiko eredugarriaren fantasiazko ipuina zabaldu ziguten, hanka-azpitik pasaz giza eskubideei lotutako “egia, justizia, erreparazioa” kontzeptu unibertsalak. Eta halaxe, bizikidetza, bakea, bi bandoen arteko adiskidetasuna... bezalako kontzeptu handi-mandiez apaindutako kontakizun horretan adoktrinatu gaituzte berrogei eta piko urtetan. Juan Carlos borboi ustelduaren aferak horixe erakutsi digu. Kazetariak heroien aldrean jarri digute hamarkadetan, eta hara non, horietako izar bat, Iñaki Gabilondo, “lotsatuta” sentitzen omen da orain.

Martin Villak, diosala faxista egiteko eskuin eskua maiz altxatzera ohitu zen falangista izaki, hainbat kargu politiko

bereganatu zituen frankismoan 1962az geroztik; Bartzelonako gobernadore zibila izan zen besteak beste. Franco hil eta Arias Navarro eta Adolfo Suarezren gobernuetako kide izan zen, harreman sindikaletako idazkari eta barne ministro. Estatuko indar errepresiboen buru izatera iritsi zen, eta poliziek zein horien konplize ziren ultraeskuindarrek 90 lagun hil zituzten estatu osoan. PSOEk hauteskundeak irabazi ostean, PPko diputatua izan zen 80ko hamarkadan. Geroztik, hainbat enpresetako (Endesa, Sogecable..) administrazio kontseiluetako kidea izan da.

Franco hil osteko trantsizioan, bere kasua, hainbaten antzekoa izan zen, mirarizkoa alegia: gauez diktaduraren egituretan ardurak edukitzetik hurrengo goizean bizi guztiko demokrata izatera igaro zirenena. Egin kontu: Francoren azken 50 ministroetatik, erdik politikan jarraitu zuten, eta beste erdik enpresa handietako administrazio kontseiluetan amaitu zuten (bide urratzaileak izan ziren ondorengo politikagintzan, modan jarritz “ate birakarien” fenomeno lotsagarri eta etikarik gabekoa).

Aldi berean, TOP (Ordena Publikoko Epaitegia) osatzen zuten 16 epaileak, polizia torturatzaile eta hiltzailearen konplize izan ostean, ondo ezagunak zaizkigun Epaitegi Gorenera edo Audientzia Nazionalera igaro ziren. Eta antzeko izan zen indar polizial eta ejertzitoko kideek bizi izan zuten prozesua (paradigmatikoa, kondekoratua eta pentsio bikain baten jabe izanik hil berri den *Billy el Niño* torturatzailearen kasua).

Frankismoko krimenentzako inpunitatea errotuta dago estatu-egituretan eta nekez epaituko dituzte Martin Villa eta enparauak. Baina gutxienik, gizartean zabaltzen ari da 78ko erregimenak hitzartutako amnesia auzitan jartzeko premia demokratikoa.

Galdutako denbora berreskuratu nahian

Aurreko zenbait hilabeteetan halabeharrez geldirik egon ostean, Burdina taldeko kideak udan gogor aritu dira lanean. Berastegin, Elduainen eta Asteasun ez ezik Andoaingo Asindegin eta Erdoiztan ere berreskuratze lanetan aritu dira

Erredakzioa ANDOAIN

Berastegi, Elduain, Asteasu eta Andoainera bideratu dituzte ahaleginak, ondare historikoa-ri lotutako hainbat elementu berreskuratze eta bistaratze-ko asmoz.

Berastegin, Arrate errota ez ezik, karobi eta garbitoki banatan txukunketa lanak egiten aritu dira. Elduainen, Allanegi karobia berreskuratu dute. Asteasun, Urniategi errota eta labadero bat garbitu dituzte. Gauzak horrela, berriz ere bisitatuak izateko moduan jarri dituzte.

Andoainen, Asindegin eta Erdoiztan

Andoainen, bestalde, bi tokitan egin dituzte lan handienak. Karrika auzoko Asindegiko garbitokian jarri dute arreta lehenbizi, Renfeko tunel txikia igaro eta parean dagoen horretan hain zuzen. Izan ere, auto batek jota txikituta geratu zen iraganean. Burdina taldeko kideek txukun eta ikusgarri utzi dute, berriro ere.

Karrikako lanak eginda, Sorabillara abiatu ziren. Auzo horretako goi partean kokatutako Erdoizta baserri ondoan dagoen karobia erabat hondatua egon da azken hamarkadatan, eta hura berreskuratzeari ekin zioten. Karobiaren jatorrizko geometria eta irudia berreskuratzea izan da xede nagusia. Aldi berean, karobien osagaietako bat ohi den "tiroa" ere konpontzeko asmoz aritu dira. "Tiro" hori lurperatuta egon ohi da, eta karobiaren funtzionamenduan tximiniaren funtzioa betetzen duela esan daiteke; batetik karea erretzean sortzen diren zirtzilkeriak garbitzea errazten baitu, eta bestetik, karobiak haizea hartzeko balio izaten baitu.

Burdinak Erdoizta baserri inguruan dagoen bigarren karobi bat berreskuratu zuen orain



Asindegiko karobia Karrika auzunean dago, trenbidearen azpiko tuneltxoan zeharkatu eta berehala. BURDINA

urte batzuk. Oso gertu kokatzen dira, biak ere. Ez da normala hala izatea, eta baliteke iraganean bien erabilera publikoa izatea. Horixe da, behintzat, aztertzen ari diren hipotesietako bat.

Burdinako kideek, zeregin horietan dabiltzan denbora berean, honako mezua helerazi diete herritarrei: iraganean erabili izan zuten tresna edo elementu zaharrik ez dezatela zakarretara bota; eurek jasotze-

ko prest daude baldin eta baliagarria bada geure historia osatu duten ohiturak, tradizioak, ofizioak... zertan izan diren jakiteko.

ASINDEGIKO GARBITOKIA TXUKUNDU ETA ERDOIZTAKO KAROBIA BERRESKURATU DUTE



Javi Padilla, Ander Otaño, Jose Luis Garcia, Joseba Urrutia, Jose Alcantara eta Javi Gallo, Erdoiztako karobian. BURDINA



San Martin aztarnategia, Buruntza auzoan. AIURRI

Ondarean sakontzeko bisitaldi gidatuak, Andoaಿಂದik hasita

Beterri-Buruntzan zehar bisitaldi gidatuak antolatu ditu Behemendi elkarteak. Larunbat honetan hasiko dira

Erredakzioa ANDOAIN

Behemendi Donostialdeko landa-garapenerako elkarteak sei bisitaldi antolatu ditu, datozen asteetarako. Tokian tokiko bereizgarriei heldu nahi diete, ondarean eta historian sakontzeko helburuarekin. Bisitaren iraupena ibilbidearen arabera izango da eta alde zuzenetik erreserbatu behar da donostialdea@behemendi.eus helbide elektronikora idatziz edo 656 70 52 43 telefono zenbakira deituz.

Prebentzio neurri guztiak hartuta antolatuko dituzte sei saioak: "Segurtasun neurri batzuk bete beharko ditugu COVID-19aren hedatze arriskuak saihesteko. Musukoa eramatea beharrezkoa da, segurtasun distantziak mantenduko dira eta partaideen kopurua gehienez ere bederatzi pertsonakoa izango da".

Irteerak

Andoain. Irailak 12

"Buruntza mendiko magaletik Zumearainoko eliza eta dorretxeen inguruko historia eta istorioak ezagutuko ditugu".

Astigarraga. Irailak 20

"Santiagomendi eta ekialdeko mugarrak bisitatuko ditugu".

Hernani. Irailak 26

"Igorin-Akola inguruko trikuharriak ezagutzeko aukera paregabea izango dugu".

Lasarte-Oria. Urriak 4

"Herrian zehar dauden muralen eta eraikinak bisitatuz historia-ko pasarte desberdinak ezagutzeko aukera izango da".

Urnieta. Urriak 10

"Adarramendin dauden aztarna megalitikoak ezagutzeko aukera izango dugu".

Usurbil. Urriak 18

"Burdinolak eta baserrien historia ezagutzeko aukera".



Jabekuntza eskola martxan

Andoaingo emakumeentzako jabekuntza eskolan udazkenari begira antolatu diren ikastaroen berri eman zuen Petri Romero Berdintasun batzordearen zinegotzi ahalduak, gainerako Udal ordezkariekin batera

Erredakzioa ANDOAIN

Jabekuntza Eskolak udaletako berdintasun arloetan antolatu-tako egitasmoak dira eta beraien helburua emakumeen parte-hartze soziala eta politikoa sustatzea da, ahalduzko prozesuen bidez.

Petri Romerok adierazi zuenez, "udaberrirako zenbait ikastaro antolatu ziren, baina Covid 19ak eragindako pandemiaren ondorioz bertan behera geratu ziren". Gizarteak bestelako egoera bizi duen arren, ikastaroak askotarikoak direla eta berrikuntzekin datozela azpimarratu du berdintasun zinegotziak.

Barrenetxea berdintasun teknikariak nabarmendu zuen segurtasuna bermatu behar dela eta jabekuntza eskolak modu egokian egin ahal izateko leku egokiak aukeratzeko ari direla;



Usandizaga, Romero, Barrenetxea, Santana eta Lainez aurkezpenean. AIURRI

gainera, taldeak bikoizten saiatuko dira, inor ikastarorik gabe ez geratzeko. Horrez gain, Romerok eta Barrenetxeak Andoaingo

emakume guztiei gonbidapena luzatu die ikastaroetan parte har dezaten. Parte hartzeko epea zabalik dago.



Txitxu Ruiz, Maider Lainez eta Ana Sanz aurkezpen ekitaldian. AIURRI

Etxebizitza aukera gazteentzat

Udalak gazteen emantzipazioa sustatu nahi du alokairurako diru laguntzen bitartez

Erredakzioa ANDOAIN

Ireki da 18 eta 30 urte bitarteko gazteei etxebizitza alokatzeko laguntzak eskatzeko epea eta azaroaren 6an amaituko da.

Udalak nabarmendu duenez, "alokairu errentaren %20tik %50era bitarteko dirulaguntzak emango ditugu, gehienez 250

eurokoak, diru sarrera gordina-ren arabera".

Pisua partekatua bada ere laguntza eskatzeko aukera egongo da, betiere, alokairuko errendamendu kontratua pisukide guztiek sinatzen badute. Dirulaguntza Udaleko Andoain.eus webgunean eskatu beharko da.

Andoaingo Emakumeentzako Jabekuntza Eskola

UDAZKENEKO IKASTAROAK 2020

Tertulia feministak

- **Irailak 14:** LA BRECHA ORGÁSMICA, Paola Damonti.
- **Urriak 16:** FEMINISMO E ISLAM, Maya Amrane.
- **Abenduak 10:** FEMINISMOA ETA EUSKARA, Idurre Eskisabel.

Bastero Kulturgunea, 18:30.

Ez da aurretik izenik eman behar, sarrera libre, aforoa bete arte.

Autodefentsa feminista tailerrak

Emagin elkarteen eskutik.

- **IRAILEAN ON-LINE:** Irailak 15, 16, 17 eta 18. 18:00-19:30.
- **AZAROAN AURREZ AURRE:** Azaroak 28. 10:00-14:00 eta 16:00-20:00

Jatorri anitzetako emakumeen elkargune multikulturala

- Urte osoan, **ostiraletan**. 17:00-19:00

Dinamizatzailea: Sorburu.

Nola erabili teknologia berriak gure telefonoan

- **Irailak 21, 23, 28, 30.** 17:30-19:30

Dinamizatzailea: Emagin.

Emakumeen esku, sendabelarrak (AURRERATUA)

- **1. taldea: Ostegunak.** Irailak 24; urriak 1, 8, 15, 22.
- **2. taldea: Astearteak.** Irailak 29; urriak 6, 14, 20, 27

18:00-20:00

Dinamizatzailea: Kris Lizarraga.

Batukada feminista

- **Astelehenak. Urriak 19; azaroak 2, 16, 30; abenduak 14.** 19:00-21:00

Botapa Batukada Elkartea.

Nola kudeatu egoera indartsu mantenduz?

- **Asteazkenak, urriak 7, 14, 21, 28**

Bi aukera: 10:00-12:00 edo 18:00-20:00

Nerea Redondo Otamendi.

Mindfulness

- **Astelehenak. Urriak 19, 26; azaroak 2, 9, 16, 23, 30.** 17:00-19:00. Clara Wolfram.

Irakurbide feministak

- **Urriak 20; azaroak 17; abenduak 22.** 18:30-20:30. Iratxe Retolaza



ANDOAINGO UDALA

IZEN EMATEA ETA HARREMANA:

www.andoain.eus

Andoaingo Udaleko Berdintasun lantaldea: Tel. 943 300 830, luz. 380 – 397
berdintasuna@andoain.eus • Andoaingo Udaleko ATARIA zerbitzua



Ondarreta ikastetxean astelehenean egin zuten aurkezpen ekitaldia, asteartean ekiteko. AIURRI

Abiatu da ikasturtea

Aparteko eragozpenik gabe abiatu da ikasturtea Andoaingo eta Urnietako ikastetxeetan. Beti ere normaltasun berriak ezartzen duen protokoloa jarraituz. Segurtasun eta prebentzio neurriak zorrotz betetzeko ahalegina agerikoa da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Haurrak eskolara eramanda, gizarte bizitzak aurrera darrai. Sentsazio hori nagusitzen ari da ikasturtearen hasieran. Alde batera utzi gabe, Koronabirusak sortzen dituen kezka eta beldurak ez direla txikiak. Aiurri Andoaingo eta Urnietako ikastetxe ezberdinetan izan da ikasturtearen hasierako martxaren jarraipena egiten, eta guztietan Osasun Larriadi egoerari aurre egiteko borondate argia ikusten da. Protokoloak zorrotz betetzeko ahalegina nabarmena da, ikastetxe guztietan.

Behar modukoa zen haurrak eta gaztetxoak eskolan hasita. Sei hilabete igaro baitira konfinamendua ezarri zenetik. Geoztik haurrak ez dira ikastetxera itzuli, eta horrek eragin handia izan du familietan eta haurren hezkuntzan.

Ikasturte hasiera honetan ikasleen erronka bikoitza izango da. Hasteko eta behin, ikastetxeetan ezartzen den protokoloa barneratu beharko dute. Bereziki, eskuen garbiketari edota musukoaren erabilerari dagokionez. Gelaka antolatuko da ikastetxe barruko bizikidetzat, eta ikasleek horretara ohitu beharko dute ikasgelan eta jolasgela. Prebentzio neurri horiek ez dira denbora tarte txiki baterako izango.

Eta, bestetik, aurreko ikasturtean ahaztu edota galdutako lezioak berreskuratu eta egune-

**IKASTETXE GUZTIETAN
AGERIKOA DA
PREBENTZIO
NEURRIAK BETETZEKO
ASMOA**

ra jartzeko saiakera egin beharko da. Pixkanaka garatuz joan beharko dira hezkuntza planak, normaltasun berriak baldintzatuta.

Eta irakasleei dagokionez, ardura handia izango dutela ukaezina da. Haurren hezkuntzan ezinbestekoak ziren, lehendik ere. Bada, irailean hasita protokolo zorrotzen zaintzaile eta bermatzaile bilakatuko dira. Eta horrek lan erantsia sortu du.

Erronkarik zailenari aurre egin behar dio gizarte osoak. Eta ikastetxea ez dago horretatik salbu. Egoera zailtzen denean ikusi beharko da ikastetxe bakoitzaren erantzuteko ahalmena zein den. Baliabideak mugatuak baitira. Gakoa izango da Hezkuntza sailaren eta ikastetxeen arteko lotura estua. Udalak ere, ahal duten neurrian, ezinbesteko eragileak dira.

Prebentzio neurri zorrotzak



Ikasle bakoitzak eskuak garbitu zituen, Aita Larramendi ikastolan. AIURRI

Garbiketa Osasun Larrialdiari erantzuteko protokoloaren arabera, ikasleek eskuak maiz garbitu beharko dituzte. Lehen egunean, ikastolara sartu orduko, ikasleek gelarekin garbitu zituzten eskuak.



Distantziari eutsi zioten Egape ikastolara sartu aurretik. AIURRI

Distantzia Ikastetxe guztietan neurri guztiak zehatz mehatz betetzeko lan eta lan aritu dira. Asteartean hasita, ikasturte berriaren martxari eutsi diote ikasleek. Hori bai, orain arte ezagutu gabeko prebentzio neurriak betez.



Ikasleei tenperatura hartzen aritu zitzaizkien ikastetxeetan. AIURRI

Musukoa Lehen egunean hasita, tenperatura hartu zieten ikasleei. Neurria berritzailea izanagatik ere, Koronabirusaren krisia gainditzeko ez den bitartean ohikoa izango da. Musukoaren erabilera ezinbestekoa izango da, 6 urtetik gorako ikasleen kasuan.



David Urtasun Berrozpe ikastetxeko jolastokian, Kaletxikin. AIURRI

"Txukun aritu behar dugu eskolan, eta eskolatik kanpo"

DAVID URTASUN LA SALLE BERROZPE IKASTETXEKO ZUZENDARI NAGUSIA

Arduraz eta erantzukizunez jokatzeko ari da hezkuntza komunitatea, eta gizarteak ere modu berean aurre egin beharko lioke pandemiari. Ardura denona da

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Ikasturtea abiatu da haur eta lehen hezkuntzan. Zein da lehenengo sentsazioa, hasiera honetan?

Pozik gaude, hasiera eman beharra dagoela iruditzen zaigulako. Ez ohiko moduan arituko gara lanean. Kezkarekin, alde batetik, baina ilusioz. Familiek ere eskolara itzultzeko gogoia daukate, eta hori ez da gutxi.

Ea posible dugun hasiera honi jarraipena ematea. Ilusioz hasi gara baina garrantzitsuen ha-

siera on hori mantentzea da. Hastea ez baita inportantea, jarraipena ematea baizik.

Txukun aritu behar dugu, eskolan eta eskolatik kanpo. Kanpotik esan nahi dut herriari begira, Andoaini begira.

Imajina daiteke pandemiarena baino erronka zailagorik?

Erronka zailena eta bereziena da. Erronka gizarteari zabalduko nioke, ez nukeelako eskolara mugatuko. Eskola gizarte bizitzaren zati inportantea da, baina erronka gizarte osoarena

da. Kontutan hartu behar da denok jarri behar dugula geure aletxoak. Gero eta txukunago arituz geroz, lehenago bukatuko dugu honekin. Zenbat eta beranduago gainditu, denok ere etxeko lanak ez ditugula behar bezain

"DITUGUN BALIABIDE PROPIO GUZTIAK EGOERA BERRIRA EGOKITZEKO BIDERATU DITUGU"

txukun egin esan nahiko du. Aita, irakasle eta zuzendari moduan diot hori.

Zenbaterainoko garrantzia du udan alde aurretik eskoletan egindako prestaketa lanak?

Baliagarria izan da, alde batetik, oportetara lasaiago joateko. Etenaldia egin eta atseden hartzeko. Eta familiak ere lasaitzeko. Protokoloak bidali genizkien azken astean beraiek ere lasaitzeko, nolabait esateko: "Begira, Gobernua eta Hezkuntza sailak emandako jarraibideak beteko ditugu. Jakin ezazuela ikastetxeak badauzkala hiru agertokiatarako plangintza desberdinak prestatuta, eta beraz gauzak ahalik eta txukunen egingo ditugula". Galdere guztientzat ez dugu erantzunik, baina nagusienak gutxienez erantzuteko moduan gaude.

Beldurra nabaritu duzue gurasoen artean? Eta beldur horri erantzuteko zein da errezeta?

Kezka eta beldurra dago, kasuan kasu. Lehenengo gauza lasaitzea da. Eguneroko lana ahalik eta argiena izan behar da, komunikazio argia erabiliz. Komunitateak ikus dezan jarraitu beharreko pautak eta bideak ahalik eta txukunenak direla. Osasunak lehenetsuna izanik, ikasketa prozesua ahalik eta txukunen eskainiko dugu.

Pedagogikoki ikusita, asko aldatu al da zuen plangintza?

Lehenengo asteetan osasunean eta prebentzioan sakontzeko ohiturak barneratu beharko ditugu denok. Hots, ikasleen sarrera-irteerak, ordutegiak, zaintzak... Horretan hezi behar ditugu, biharamunean ere elkarrekin egon daitezen. Lehen helburua hori da, ahalik eta hezkuntza osasungarriena bermatzeko eta gora behera gutxiago izateko.

Gerora joango gara indartzen aurreko ikasturtearen ondorioz sortutako hezkuntza mailako hutsuneak. Ikasturte berezi honi neurria hartzen diogunean, hasiko gara ikasturte berriari dagozkion metodologia eta pedagogia txertatzen. Baina, esan bezala, ordena horretan.

Euskadin DBH, Batxillergoa eta Lanbide Heziketa atzeratzea onuragarria izan al da ikasturtearen hasiera zaila mailakatua izan dadin?

Bai, guretzat bai, azken batean gure ikastetxea handia baita. Ikasle asko ditugu. Datorren asterako, helduagoak hasten direnerako, esperientzia gehiago izango dugu. Zertan asmatu du-

gun eta zer hobetu behar dugun ikusteko denbora izango dugu. Gauza asko baitira: Jolas garaiak, zaintza, sarrera-irteerak...

Antzematen genuen haur txiki-ien eskola hasiera ez zutela atzeratuko. Txikiak hastea premiazkoa baita gure gizartearen. Premia gehien dituzten ikasleak dira. Ikasle helduagoekin, aldiz, errazagoa da kontziliazioa.

Irakasleak era berean langileak dira. Ba al dago euren arduraren handiegia dagoen sentsazioa?

Bai, eta horretan gizarteak atsaka egiten ari dela uste dut. Bakoitzari dagozkion ardurak hartu behar dira, eta ez besteengan utzi. Kritiko izatea oso inportantea da, baina gizarte bezala enpatia falta zaigu. Jar gaitezen beraien lekuan, ikusi zein egoeratan dauden.

Bakoitzak azter dezala udan zer nolako ardurak hartu dituen. Eta gero pentsa dezala hezkuntza sistemak egun batetik bestera ikasle guztiak hartu behar dituela. Eskolak beteta egoten dira. Pentsa zer nolako erronka den eta zer nolako ardura den hezkuntzako langileentzat. Enpatia falta zaigu. Ondo daude kritikak, baina era eraikitzailean izan daitezela.

Egoera zail batean, demagun irakasle bat baino gehiago bakartu beharrean dela... Bermerik ba al dago? Ordezkapenak egiteko, adibidez, nolabaiteko segurtasunik baduzue?

Ez, ikastetxeak ez ditu baliabide gehiago. Dauzkagun errekurtsu guztiak egoera berrira egokitze- ra bideratu ditugu. Ikusi behar zein laguntza iristen den, baina ez dago ezer garbi. Gainkostuak sortuko dira, eta hori guztia ezin dugu familien bizkar jarri. Uler- tu beharra dago gure baliabideak mugatuak direla.

Familia ardatza da zuen ikastetxean. Zuen lema nagusietakoa hori da. Zure posturik zer nolako mezu emango zenieke familiei?

Konfiantza izan dezatela ikastetxea egiten ari den lanarekin. Eta enpatiarekin batera, egiten dugunak kanpoan egiten dugunarekin lotura izan behar duela. Hezkuntza ez da uharte bat. Eskolatik aterata berdin-berdin jokatu behar dugu.

Beldurra eta kezka denok ditugu, baina konfiantza izatea beharrezkoa da. Goazen aurrera egitera, goazen laguntzera... denon artean egin behar dugu aurrera.



Amasolako harkaitza, igotzeko 38 bide irekita daude bertan. Otieta parketik ia bi kilometrora dago, Plazaolako naturbidean barrena. AIURRI

Eskalatzeko txokoak

Leitzarano bailaran zein Adarramendin hainbat horma topa daitezke eskaladan aritzeko aproposak direnak. Nahiz eta normalki eskalatzailerik gehiegi ez ikusi horietan, gozamen ederra eskaintzen dute kirol hori praktikatzeko

Xabier Lasa ANDOAIN

Eskaladako zaletu amorratuarentzat paradisuaren parekoak dira paraje horiek, adituek diotenez. Gainera, kirola aparteko ingurumen naturalean egiteko aukera ematen dute guztiek ere, hiri-ingurunean kokatzen diren kirol instalazioek ez bezala.

Leitzarango bailaran hainbat horma topa daitezke, Amasola, Aizkorriko, Errosario, Onddo,

Orbara... Guztien artetik Amasola eta Aizkorriko harkaitzak dira ezagunenak eta erabilienak; Foru Aldundiak eta Andoaingo Udalak Gipuzkoako Mendi Federazioarekin eta Eskalada Eskolarekin batera bi hormak eskalatzeko moduan ekipatu zituzten orain urte batzuk.

Geologikoki, konglomeratua eta hareharri gorrixkek osatzen dituzte bi eskalada gunek horiek.

Amasolako eskalada eskola

Amasolako harkaitza Otieta parketik 1.800 metrotara dago. Bertan 38 bide irekita daude, eta guztiek bide urratzaileek jarritako izena daramate. Dene-tariko izenak dauzkate, Otieta ipinitako informazio panelean irakur daitezkeenez: *Irailak 27, Aizkora eta Sugea, Aukeran Lelo Bera, Olamian Jai, Kontuk ta Komerik, San Frantziskon Buel-*

taka, Duntxola, Rotaflexa Garraxika, Dilinda-Lan, Astopixta, Bidetxurra, Lurra ta Askatasuna, Ardi Beltza, Basajaunaren eremuan, Koroaz Kokoteraino, Azken Anarkista, Jatazazta, Antxejunda, Txirripistin, Deba-jo del Ombligo, Marisorgin...

20 metro ditu motzenak, eta 40 luzeenak. Teknikoki zailtasun edo gradu desberdinetakoak dira; gehienak ekipatuta daude, baina badaude bakar batzuk ekipatu gabe friend eta fisureroekin eskalatzeko moduan. Horixe da Amasolaren bereizgarrietako bat hain zuzen, Gipuzkoan eskalada eskoletan nekez topa baitaitezke ekipatu gabeko bideak.

Aizkorriko eskalada eskola

Aizkorriko eskalada gunea izen bereko gailurraren iparraldeko norabidean kokatzen da, eta Adarramendiari begira dago. Paraje horretara zailagoa egiten da hurbilketa; Baltzun baserritik edo Idoiagako zelaitik gora jo behar da horma horretara iristeko.

Club Vasco de Camping menditaldeko eskalatzailerik 2006an moldatu eta ekipatu zuten horma.

Berez, bi hormek osatzen dute Aizkorriko eskalada eskola: Goi Aldea eta Riglos Txiki (Huescako haitz famatuaren tanke-rakoa omen delako jarri zioten izen hori). 29 bide daude irekita bi horma horietan, zailtasun eta luzera desberdinetakoak (sei metrotik hasi eta berrogei metro bitartekoak). Hona zenbaitzuen izenak: *Mis Primeros Pasos, Bagoaz Ikasiz, Precipitaciones Debiles, Vivito y Colgando, Bizi eta Utzi Bizitzen, Basandrea, Perdonen Que No Me Levante, Txika Dura Txiko Fazil, Territorio Komantxe, Kai-xo Bikote, Orkonpon, Te Veo Torpe, Tripakomina, Los Penitentes...*

Xehetasun gehiago jakite aldera, jo daiteke Gipuzkoako eskaladako hormen inguruko informazioa biltzen duen mendiaetaeskalada.blogspot.com internet gunean.



Aballarriko arista ere nahiko arin eskalatzeko moduan egon zen iraganean, baina egun oteek ia dena estaltzen dute eta zail jarri diote mendizaleari gainez gain ibil dadin. AIURRI



Adarraitzeko horma Adarramendiko tontorrera iritsi baino metro batzuk beherago dago, mendi gunearen alde batean. AIURRI

Adarran eskalatzeko hormak

Adarramendi inguruan ere gozatu liteke eskalada praktikatuz. Tontorraren ondoan dauden harkaitzetan, hain zuzen: Adarraitz eta Eguzkitza.

Adarraitzen, hamaika bideetan barrena igo daiteke eskalatzailea: *Karramarro bidea*, *2KT*, *Karls eta Berg*, *Ziklogenesi Leherkorra*, *Biamai*, *Adarraitz*, *Romanesku*, *Keler18*, *Via Rectal*, *Iltze ala Hil* eta *Txikipark*. *Karramarro* bidea luzeena da, eta *Via Ferrata* gisa prestatuta dago, hots, hainbat materialez prestatutako bidea dela zaildu gabeko eskalatzaile edo mendizaleak gunee arriskutsuak segurtasunez igaro ditzan;

disipadorea, kaskoa eta rapelatzeko soka behar da *Via Ferrata* horretan zehar ibiltzeko.

Eguzkitzako horman, berriz, *Eguzkitza* espoloia eta *Nahiera* izeneko bi bide daude irekita.

Bestalde, badago jendea hiru tirolina (15 metroko motza, 490 metroko ertaina eta 60 metroko luzea) eta Slacine primitiboa (soka baten gainean oreka lantzeko kirola) prestatu izan dituen Adarramendiko paraje horretan. Horretarako, sokaren mutur bat tontorrera lotu behar da, eta beste muturra pare-parean dauden harkaitzetara.



Ketxus Miron, Piriniotako gailurren batean ateratako argazkian. IXAKAPEREZ

Ketxus Miron eskalatzailea gogoan

Amasolako harkaitzaren hankapean Ketxus Miron (Andoain, 1963-2005) andoaindarraren omenezko oroitarri bat topa daiteke, eta honako idatzia darama: “Maite zenuen horretan haizean, askatasunean. Beti gogoan izango zaitugu”.

Miron Andoaingo eskalatzaile amorratua izan zen, Leitzarango bailaran makina bat ordu egin zituen oinez, korrika, eskalatzen... Gaitz larri batek eraman zuen betirako, oraindik ere osasuntsu, naturaz eta kirolaz gozatzen zebilela.

Amasolako horma oraindik ere eskalatzeko moduan ez zegoen garaian txukuntzen ibili ziren boluntarioetako bat izan zen Miron. Belar, goroldio, liken, erratz, ote eta sasien garbiketa itzela egin zuten boluntarioek 90eko hamarkadan, eta haiei eskertu behar zaie eskaladaren zaleek 38 bide eskura edukitzea Amasolako eskalada eskolan, natura-gune pribilegiatu baten erdian.

Mironen oroitzapena eta bere eskuzabaltasuna gogoan edukitzeko ipini zuten aipatutako oroitarria orain 15 urte.





Barrenetxea IV iazko txapelduna lehiaketatik kanpo geratu da. UTS

Erremonteko Kutxabank txapelketa aurrera doa

Barrenetxea IVa txapelketatik kanpo geratu da. Urrizak, berriz, finalerako txartela lortu dezake larunbatean

Mikel Arberas HERNANI

Urrizak ia seguru finalaurrekoetarako txartela lortua du; baina, hurrengo partidaren 16 tanto baino gutxiago eginez gero, Juanenea izango litzateke zuzenean finalera igaroko den pilotaria.

Pasa den urtean txapeldun geratu zen Endika Barrenetxea Kutxabank Torneoan, baina aurreneko ia ezinezkoa du hurrengo fasera sailkatzea. Endika Urrutiaren aurka 23-30 galdu zuen ostegunean Galarretan, eta punturik gabeko sailkapenean. Beste emaitzen zain geratuko da hurrengo fasera igarotzeko aukerarik duen jakiteko. Juanenea eta Endikaren arteko partiduan bietako batek 16an edo tanto gutxiagoan geratu beharko luke eta berak Urriza gainditu bien arteko partiduan. Hernaniarrak mirari bat beharko luke hurrengo fasera igarotzeko.

Larunbateko partidaren kronika


Juaneneak garaipena eskuratu zuen Endikaren aurka Kutxabank Torneoaren finalerdietako ligaxkakako bosgarren partidaren (29-30) eta emaitza horrekin biak sailkatu dira finalaurrekorako; 2019ko txapelduna, Barrenetxea IV.a, txapelketatik kanpo geratu da. Gainera, Juaneneak, zortzi punturekin, finalera zuzenean sailkatzeko aukerari eusten dio.

Sarreraren zozketa, larunbat honetarako

Aiurrik erremontista profesionalen partidak ikusteko sarrerak zozketatuko ditu larunbateko partidurako. Galarretan jokatu-ko dira arratsaldeko 16:00tatik aurrera. Hiru partida jokatu-ko dira, eta bat izango da estelarra.

Sarrerak lortzeko bideak bi dira:

- urnieta@aiurri.eus.
- 619 163 537.



Arrate pilotalekua. AIURRI

Entrenamenduei ekin diete Arrate pilotalekuan

Gazteleku pilota eskolak protokolo zehatza jarraitu beharko du entrenamenduei ekiteko

Mikel Arberas ANDOAIN

Andoaingo Gazteleku pilota elkarteak entrenatzeko protokoloa ezarri du, pilotarien segurtasuna eta osasuna bermatzeko aldera. Euskal Pilota Federazioak adierazi duenez, ez legoke arazorik frontoi estalietan entrenatzeko, baina ezinbestean zenbait neurri bete beharko dute pilota elkarteak.

Egunez egun egoera aldatuz doala eta arauak eraldatu ahal-ko dituzte, betiere, instalazioa kudeatzen duenarekin adostuta.

Oinarritzko arau modura, pilota bakarrarekin gehienez ere zortzi lagun ibili ahal izango dira.



Debora Frutos eta Jokin Urkizu lasterketako autoaren ondoan. DEBORA FRUTOS

Garaikurra Nafarroako ralliesprint txapelketan

Jokin Urkizuk eta Debora Frutosek Nafarroako Rallysprint txapelketan lasterketa ezin hobea egin zuten

Mikel Arberas ANDOAIN

Jokin Urkizu amasarra pilotu lanetan aritu zen, eta Debora Frutos andoaingarria kopilotu gisa; Nafarroako ralliesprint lehiaketako laugarren kategorian hartu zuten parte BMW E30 325i autoarekin; izan ere, lasterketan erabiliko den autoaren arabera, maila batean edo bestean parte hartzen da. Guztira, hamar maila bereizten dira.

Lasterketa Ziharka Motorsport automobil taldeak antolatu zuen Lesakan irailaren 5erako. Pilotu eta kopilotuek gogo biziz parte hartu zuten lasterketan; alabaina, orain harteko zenbait lasterketa bertan behera geratu dira Covid 19a dela eta, Focus eta Kobe Kopa barne. Andoaindarrak Maider Usandizagarekin parte hartu behar zuen Focus kopan, eta prestakuntza lan handia egin zuten. Zoritxarrez, egungo egoera dela medio, ber-

tan behera geratu da txapelketa. Debora garaipenaren hari- ra, zera dio: "Uste baino hobeto burutu genuen lasterketa eta izugarri gozatu genuen. Denbora bikaina egitea lortu dugu, eta, gainera, lasterketa ederrean parte hartu dugu".

Aurrera begira

Jada bost lasterketa inguru ospatu dira, maskarekin eta oinarritzko segurtasun neurriekin. Hala ere, ez dute jakingo lasterketa gehiago egingo diren azken unera arte: "Antolatzaileek azken unera arte itxaroten dute lasterketak bertan behera geratu-ko diren ala aurrera jarraituko duten jakinarazteko. Hala ere, pentsatzen dugu asfalto gainean arituko garela". Debora itxaropentsu agertu da, "Focus Kopa bertan behera geratu den arren, agian lasterketaren bat egingo da txapelketatik kanpo".

XXXVIII. BURUZ BURUKO ERREMONTTE TXAPELKETA KUTXABANK SARI NAGUSIA 2020

Irailaren 12an, 16:00tatik aurrera


BARRENETXEA IV

VS

URRIZA



Pelotadenda.com



SS sukia





Finalera sailkatu zen seikotea, Azpeitiko Zezen plazan. Ezkerretik hasita, Zaldua, Gabirondo, Arria V, Peñagarikano, Errazkin eta Kañamares. UZTARRIA

Gabirondo, Pentatloieko ezusteko atsegina

Azpeitian jokatu zen hirugarren Euskal Pentatloian Julen Gabirondok prestaketa lan bikaina egin zuela erakutsi zuen. Maila fisiko bikainean aritzeaz gain, lehiarako grin handia duela argi ikusi zen. Irailaren 26an jokatu den finalera sailkatu da

Erredakzioa URNIETA

Segalaria maila fisiko bikainean dago, hain trebea ez den beste probatan bikain aritu baitzen. Hamabost partaideen artean, azken txanpan lehiatzea egokitu zitzaion goiburuarrari. Urduritasuna areagotzeko arrazoia izan ohi da, baina baita aurkarien lana gertutik aztertu eta erreferentziak hartzekoa ere. Denborak ikusita, lehiakortasunean sakontzeko aukera baliatu zuen urnietarrak.

Lortu zuen bigarren postuarekin finalean sartu da. Irailaren 26an jokatu da, Azpeitiko zezen plazan. Finalaurrea jokatu zen toki berean, beraz. Gabi-

rondo urnietarrak, egun hauetan, atsedean hartu eta prestaketa saio onak egiteko aukera dauka. Denboraldi zail honetan, zukurik onena atera dio sortu zaion kirol desafioari.

Probak

Pentatloia hitzak ondotoxoa adierazten duenez, probak bost ziren denera:

LORTU ZUEN BIGARREN POSTUAREKIN FINALEAN SARTU DA

- Harria altza: Hamar jasoaldi 100 Kg.ko harriari.
- Giza proba: Plaza bat 400 kilo-ko harriarekin.
- Aizkora: Kanaerdiko bat, eta 45 ontzako enborra.
- Txingak: Hiru plaza, 50 kiloko bi txingarekin.
- Lasterka: Hamar itzuli plaza-ri.

Finalera sailkatu den seikotearen denbora

1. Zaldua 12:50.
2. Gabirondo 14:04.
3. Arria V 14:24.
4. Peñagarikano 14:24.
5. Errazkin 14:40.
6. Kañamares 15:40.



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Landismoa

Astearte eguerdian jaso nuen galdera Twitter bitartez. Igor Susaeta lankide ohi eta lagunak eginga. Landismoa ea zer den, edo zertan den... Landismoa Mikel Landa zaletasuna da, Murgia ziklistaren balentriekin gozatzea, bere erasorako grina hauspotzea, eta bere garaipenak lau haizetara barreiatzea. Ez nuke harroputz itxura eman nahi, baina esango nuke termino horren genesian egon nintzela bospasei urte atzera, Jon Altuna Euskadi Irratiko lankidearekin batera, txirrindularitzaz izaten genituen solasaldi luzeetan. Landa Astana taldean zegoen garaiak ziren, 2015a, oker ez banago. Silvio Martinelli Giroa lapurtu zion Giro hura, Fabio Aruren mesedetan...

Han puxika bat puztu zen, eta airea gordetzen du oraindik bere barruan. Batzuen begietara orduko aire bera du puxika horrek. Nire begietara puxika erdi hustuta dago. Arabarraren lorpen eta jarreraren erasokorra goratu den azkartasun berarekin isilarazi, edo geratu baitira ezkutuan bere akatsak, bete gabeko espektatibak. Eta horrek kolokan jartzen du kazetari jardunean eduki beharko genukeen inpartzialtasuna. Zale gisa subjektibotasuna guztiz baimendua dago. Kazetari gisa... ez luke behar.

Beste twitter zale batek Landa Atletico Madril futbol taldearen antzekoa dela esan zidan. 'Pupas' esaten diote gazteleraz. Alegia, azienda ahulari dena eltxo bilakatzen zaion kirol taldea. Landari itzuli handietako

podiumengatik lehiatzeko iragarpena egin zitzaion, baina errealtateak ez du gezurrik esaten. Podium-ak gertu ez, urrun izan ditu Murgia ziklistaren Tour honekin Landak, eta podium bakarra egin du. 2015ean, bost urte atzera. Egia da azken hiru Tourretan erregularra izan dela, denetan Top 7an: laugarren 2017an, zazpigarren 2018an, eta seigarren iaz. Landa berak ere, kirolari guztiek bezala, handikiro plazaratzen ditu bere helburuak. Podiumaz mintzatu zen Nizan, Tourreko helburuaz galdetuta, eta ez zuen maillot horia lortzeko borrokan murgiltzea baztertu. Gehitxo? Bai. Sinetsi, edo ez, norberaren hautua...

Tourreko lehen erdia bete da. Haize-babesen zepo batean trabatu zen Landa, baina asteartekoa arrakastatsu libratu zuen. 10. da sailkapen nagusia, 1.42ra, eta mendi asko geratzen da. Bere terrenoa! Tourreko bospasei onenen sortan dago Landa, baina arriskatu egin beharko du, gainsariek kalte egingo dietelako, eta Pirinioetan oso segundo gutxiko aldea egon delako oilarren artean. Gainera, Les Planches des Belles Filles-eko kronoigoeran minutu eta erdi eta bi minutu artean gal ditzake faborito askorekiko. Nire pronostikoa? Podiuma ia ezinezkoa dela. Roglic, Bernal eta Pogacar Landa adina dira, eta hirurak Murgia baino hobeak dira erlojupekoan. Landismoak, baina, logika eta aurreikuspen oro hauts dezake, beraz esperantza!!!



FRANTZIAKO TOURRA
AIURRI.EUS | @aiurri





Jabekuntza Eskola. UDALA

Jabekuntza Eskolaren lehen hitzorduak

Hitzaldiak eta tailerrak dira ikasturte berriko eskaintza nagusiak, beti ere egoerak baldintzatuta

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak Jabekuntza Eskolaren ikasturte berriari ekin dio, eta egun hauetan egingo dira lehen hitzorduak. Koronabirusak sortutako egoerak ahalbidetzen duenerako, ekitaldi gehienak aurrez aurrekoak egitea espero dute. Bien bitartean, segurtasun eta prebentzio arauak bete behar dira. Emakumeen ahalduntzea da eskolaren helburua, eta baita harremanetarako eta esperimentaziorako espazioak sustatzea ere.

LEHEN IKASTAROKAK

Autodefentsa feminista tailerrak. Irailaren 15etik 18ra, internet bidez eskainiko da. Erasoak identifikatzea eta mekanismoak garatzea dira ikastaroaren xede nagusiak. Azaroan, ahal izanez gero, aurrez aurreko ikastaroa egin nahiko lukete. Bien bitartean on line bidezkoa eskainiko dute.

Teknologia berrien erabilera. Eskuko telefonoak eta aplikazio ezberdinek eskaintzen dituzten aukeren hurbilketa izango da, gailu horietan trebeak ez direnei begira. Bi orduko lau saio izango dira.

Ikastaroei buruzko informazio osoa Urigainen lor daiteke.

HITZORDUAK

UDAN ZEHAR EKITALDIK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 10

ANDOAIN Ikastaroa

AEKn euskara ikasteko matrikulazioa zabalik dago. Maila guztiak.

Informazioa: AEK

943 59 17 04, andoain@aek.eus.

ASTELEHENA 14

ANDOAIN Solasaldia

"La brecha orgásmica" solasaldia, Paola Damontiren eskutik. "Nola patriarkatuak oheraino jarraitzen gaituen" goiburua agertzen da afitxan. **18:30 Bastero.**

ANDOAIN Ikastaroak

Pintura, marrazketa, arte aplikatuak, egur taila eta idazketa sortzailea ikastaroak Basteron. Irailaren 14tik 18ra izen-ematea zabalik lehenengo aldiz matrikulatuko direnentzat.

Informazioa: 943 30 35 40, Bastero.

ASTEARTEA 15

ANDOAIN Ikastaroa

Autodefentsa feminista tailerrak. Urigainen eman behar da izena. **Irailak 15-18, on line.**



"Organik" antzezlanak Emilio Fernandez de Pinedoren eta Deibiz Ameztoren eskutik. AIURRI

URNIETA Kale antzerkia Etxeberri plazan

Mr Natural ausarta eta bio-abenturazalea da, barazki eta fruituak maite ditu. Baina badauka bere itzala, sabeleko alde ilunetik ateratzen dena, "Yoyo" izenekoa. Sarrera doan da. 17:00etatik aurrera tokiaren edukiera bete arte.

Irailak 12, larunbata. 18:00, Etxeberri plaza. 17:00.

OSTIRALA 18

ANDOAIN Kontzertua

Anari eta bere taldea zuzenean. Sarrera doakoa, gonbidapenarekin. **22:00 Ondarreta.**

URNIETA Odol-emaileak

Odol emaleen saio berria. Azken aldi honetan bezalaxe, odol-emaileek aldeztu aurretik izena eman beharko dute.

18:30-20:30 Lekaio.



Andoaingo Hiribusa. AIURRI

Hiribusa indartu da eskola ordutegian

Irailaren 7an hasita, 08:30ean eta 12:30ean bi autobus ibiliko dira Hiribus zerbitzua eskaintzen

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo herri barruko hiribus zerbitzua ikasturte berrira eta egoera berrira egokitu dute. Goizean eta eguerdian, ikasleen joan etorria areagotu daitekeelakoan, bi autobus ibiliko dira Hiribus zerbitzua eskaintzen. Koronabirusak distantzia soziala areagotzea dakar eta, beraz, bus zerbitzu bakoitzeko bidaia-ri kopurua mugatua da. Horregatik, 08:30ean eta 12:30ean bi autobus martxan jarriko dituzte.

Asteon hasita, gainera, Hiribusa erabiltzeagatik ordaindu egin beharko da. Prezio arrunta 0,60 eurokoa da, eta jubilatuen kasuan 0,20 euro. 3 urte bitarteko haurrak dohainik sartu ahal izango dira.

Udalak zabalduko oharren arabera, ohiko ibilbideari helduko dio herri barruko bus zerbitzuak. Calonge auzuneraino iritsiko da busa. Eta, lehen bezalaxe, asteazkeneko eta osteguneko hilerirainoko ibilbidea osatuko du. Udalak prebentzioaren aldeko mezuan sakondu nahi izan du: "Hiribusak garraio zerbitzu seguru eta egokia eskaini nahi die andoaindarrei, eta horregatik, gogorazten da ezinbestekoa dela maskararen erabilera, baita hiribusean ere".

Zure bizitza **EUSKARAZI!**

Matrikula irekita irailaren 2tik 18ra

Maila guztiak: aurrez aurre eta autoikaskuntza

Moduluak: astean 2 edo 4 egun

Eta azterketak: HABE, IVAP, Perfilak...

Titulu ofizialak: euskaltegian lortzeko aukera!

Bulegoko ordutegia:
09:30 - 13:30 / 16:30 - 19:30

Karobieta 63, Hernani
Tel. 943 331 896 688 826 539
euskaltegi@hernani.eus

Dirulaguntza handiak!
Etorri galdetzera!

20/21
ikasturtea



HERNANI
Udal Euskaltegia

Emakume langilegoaren argazkiak ikusgai

Koronabirusaren etorrerak Itxaso Mendiluzek osatutako erakusketa eten zuen, martxoaren erdialdean. Sei hilabete igarota, Basteroko erakusketa aretoko ateak ekimen berdinarekin irekiko dituzte. Irailaren 14tik 25era ikusgai izango da



270 argazki osatzen da erakusketa. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Itsaso Mendiluzek "Herria herri bilakatu zuten Andoaingo emakumeak III" erakusketa prestatu eta aurkeztu zuen martxoaren 5ean. Egun gutxira bertan behe-

ra geratu behar izan zuen osasun krisialdia zela medio. Baldintza berrietan, eta segurtasun neurriak betez, Basteroko ateak berriro irekiko dira irailaren 14tik 25era. Asteazkenean, as-

teartean ezik, 18:30etik 20:00era zabalik izango da. Larunbatetan, aldiz, 10:30etik 13:00etara.

Erakusketan protagonista nagusia Andoaingo emakume langilegoa da.

Erakusketa Andoaingo geografiakoki kontutuan hartuta egituratu da. Horrela, Sorabillatik hasi eta Gudariaren Etorbidea bitarte, Andoaingo historia hurbileko indutrigintzaren erreallitatea osatu duten hainbat lantegi ageri dira, emakume langileen ikuspegitik. Hala nola, Inquitex, Fierro, Algodonera, All-Fix, Papelera Leizaran, Plasticos Garden, CAR, Eroski, Sapa, Silen, Intex, Spar, Celulosas Andoaingo, Moleda, Laborde, Zia-ko, Olamia eta Krafft.

Mendiluzek Andoaingo argazkiekin paratu duen hirugarren erakusketa da. Oraingoan aurpegiak eta izen-abizenak plazaratzea izan du ardatz. Martxoaren hasieran Aiurriri eskainitako elkarrizketan adierazi zuenez, "iluntasunetik argitara ateratzea justiziazkoa zen. Argazkiak erakustea Andoaingo historia hurbila kontatzeko eta agertzeko modu egokia izan liteke. Artxiboetan oso gutxitan ageri ohi den informazioa izan arren, gure aurreko emakumeen egunerokotasuna islatzen dute".

270 argazki ikusgai

Erakusketan zehar 270 argazki ikusgai daude. Zaharrena 1926. urtekoa da, Algodonerako langileena. 2018ra bitarteko argazkiak aurki daitezke, datorren irailaren 14an zabalduko den erakusketan.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Maddi Uranga Elvira

Irailaren 29an gure printzesak 8 urte beteko ditu, eta primeran ospatuko dugu. Zorionak polita eta milaka muxu potolo. Muaaa!!!

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Udaltzaingoa: 943 300 819.
Osasun zentroa: 943 006 670.



Odol ematea Urnietan

Irailak 18, ostirala

Odol emateen saio berria. Aldez aurretik izena eman beharra dago. Segurtasun neurriak bermatzeko, txandak banatuko dira odola ematera gerturatzen diren pertsonen artean jende pilaketak ekiditeko. 18:30-20:30 Lekaio.

Kultur elkarteei zuzendutako dirulaguntza deialdia

Andoaingo Udalak berriki atera du deialdia, eta bertara aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko urteetan baina beranduago, Andoaingo Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailak herriko kultur elkarteei diruz laguntzeko deialdia luzatu du. Eskaera aurkezteko Irailaren 30era bitarteko epea dute herriko kultur elkarteek. Udalak zabalduko oharraren arabera, "Dirulaguntzen bidez sostengu eman nahi zaie herriko kultur eskaintza zabaltzen eta hobetzen lagunduko duten kulturaren arloko sustapen-, sorkuntza-, prestakuntza- eta zabalkunde-

ekimenei, tokiko eragileek antolatuz gero. Sailak 90.000 euroko partida du laguntzetarako Andoaingo herrian erreferente diren edo kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen eta egitarauak antolatzeke".

Eskaerak Basteroko harreraren edo herritarren arretarako Ataria bulegoan aurkeztu behar dira. Aldez aurretiko hitzordua derrigorrezkoa izango da, aurrez aurreko kontsultei dagokionez. Telefonoz edota andoain.eus webgunean sartuta aurki daitezke argibide guztiak.

Euskara ikasleei zuzendutako dirulaguntza deialdia

Urnietako Udalak euskara ikasleak diruz lagundu nahi ditu. Aurkezteko epea irailaren 18an amaituko da

Erredakzioa URNIETA

Udalak dirulaguntza emango die pasa den ikasturtean euskara ikasketetan murgilduta izan ziren herritarrei. Eskaera egiteko azken eguna irailaren 18a izango da.

Diruz lagun daitezkeen euskara ikastaroak ondorengoak dira: HABEK homologatutako ikastaroak; modulazio desberdinekoak, barnetegiak eta autoikaskuntza.

Langabetuen kasuan ordaindutako matrikularen %100a jaso ahal izango dute, eta %85a lanean

ari direnen kasuan. Diruz laguntzeko gehienezko matrikularen kopurua 600 eurokoa izango da, urteko eta ikasleko.

Laguntza jaso ahal izateko, besteak beste, euskaltegiaren ziurtagiria, ikasleak izandako asistentzia, aprobetxamendua eta ordaindutako matrikulari dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Laguntza hauek Urnietan bertan erroldatuta dauden pertsonen zuzenduta daude.

Informazio osoa eskuragarri dago Urnieta.eus webgunean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 12 eta igandea 13

ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302. Andoaingo.

URNIETA

Larunbata 12 eta igandea 13

URRUTIA: Etxeberri, 1. Florida.
943 557 738. Hernani.

Andoaingo Gudua gogoan

Gauza jakina zen aurtan ez dela Andoaingo gudurik izango; nolanahi ere gutxienez hiru ekintza antolatu dira 1837. urtean gure herriko baserri eta kaleetan izandako hondamendia eta gertakari odoltsuak gogora ekarri eta ezagutzera emateko



Guduaren antzezpena Santa Krutz zubian, 2013an. AIURRI

Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Komunitatea | ANDOAIN

Batetik, Andoaingo Udaleko Kultura lansailak, Gipuzkoako Foru Aldundikoak eta Larramendi Bazkunak antolatuta, eta Ondareari buruzko Europako Jardunaldien baitan, Andoaingo

guduari buruzko azalpenak emango dituzten ibilbideak antolatu dira irailaren 20rako. Bestetik, Larramendi Bazkunak bere Lekukotzak bildumaren 11. zenbakia emango du argitara, zehazki Andoaingo guduari buruzkoa. Azkenik, sarean ikusgai

jarri da dagoeneko 2013. urtean egin zen lehendabiziko Andoaingo guduan grabaturiko bideoa. Hiru ekimen horien bidez bizi-rik eutsi nahi diote antolatzaileek Andoaingo gudua ezagutzera emateko ahaleginari.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak 2013ko Andoaingo guduari buruz egin zuen bideoa jada zintzilikatu du interneten eta herritar guztiek ikusi ahal izango dute. Ikusi ahal izateko Aiurri.eus guneko Komunitatea atalean sartzea besterik ez dago, Larramendi Bazkunari eskainitako atalean. Bideo hori bera salgai dago DVD formatoan.

Lekukotzak argitalpena irailean eskuragarri

Larramendi Bazkunak bere Lekukotzak argitalpenaren 11. zenbakia emango du argitara. Zenbaki hau, oso-osorik, An-

doaingo guduari buruzkoa da eta bertan azaltzen dira 1837ko irailaren 8tik 16ra bitartean Andoaingen eta aldirietan gertaturikoak, labur. Gainera, lau lekukotasun ematen dira argitara, horietako hiru aurreneko aldiz euskaraz: lehena, Antonio Zavalak bilduriko bertso aski ezagunak guduari buruz. Bigarren lekukotasuna, Jose Inazio Uranga jeneral karlistak idatzitako gerra egunerokotik ateratako xehetasunak egun horretan –irailaren 14an– eta aurrekoetan gertaturikoei buruz. Hirugarrena, Antonio Pirala historialariaren guduari buruzko narrazioa, aski ezaguna hau ere. Azkenik, laugarren lekukotasuna eta luzeena, Henry Wilkinson mediku ingelesak lehen karlistaldian Andoaingen izandako borroketaz idatzi eta Londonen argitara eman zuena.

Lekukotzak bildumako zenbaki honen bidez, Larramendi Bazkunak amaiera ematen dio karlistaldiei buruz egindako trilogiari, dagoeneko argitara emandako 9. eta 10. zenbakiak orokorrak baitira eta 11.a, berriz, zehazki Andoaingoari buruzkoa. Zenbaki berri hau irailaren 20tik aurrera eskuratu ahal izango da Andoaingo liburutegietan

eta laster ezagutzera emango den beste saltegiaren batean.

Andoaingo guduari buruzko ibilbidea

Azkenik, Udalak, Foru Aldundiak eta Larramendi Bazkunak antolatuta irailaren 20an, igandearekin, Andoaingo guduari buruzko ibilbidea antolatu da herriko kaleetan barrena. Ibilbide hori Ondarearen Europako Jardunaldien barruan antolatu da eta, aurreko urteetan egin bezala, euskaraz egin ahal izango da eta baita gazteleraz ere. Covid19aren pandemia dela-eta taldeak mugatuak izango dira: bi taldek euskaraz egingo dute eta talde bakoitzean, gehienez ere, 8 lagun izango dira; denetara 16. Talde bakoitzarekin bi gidari izango dira azalpenak ematen.

Gaztelerazko taldean, berriz, 9 lagunek eman ahal izango dute izena eta beraiekin gidari bakarra izango da. Goizeko hamarretan emango zaio hasiera ibilbideari, dagozkion segurtasun neurri guztiak hartuta, eta, gutxi-gorabehera, bi ordukoa izango da. Izena emateko Bastero kulturgunera deitu behar da telefonoz. Bertan emango zaizkio parte hartu nahi duenari xehetasun gehiago.

Sanmielak bertan behera utzi ditu Udalak

Urnietako Udalak zabaldu duen oharrean "ulermena, zuhurtzia eta erantzukizuna eskatzen die urnietarrei, neurri horren helburua herritar guztien osasuna eta ongizatea zaintzea baita"



Urnietako Udala

URNIETA

Urnietako Udalak jakinarazten du aurtengo San Miel jaiak ez ospatzeko erabakia hartu duela, Koronabirusaren ondorioz bizi dugun egoeragatik, eta ospakizunak bermeekin egiteko bete behar diren baldintza soziosanitarioak bermatzen ez direla kontuan hartuta.

Erabaki hori Udalean ordezkariak duten hiru alderdi poli-

tikoek babesten dute (EAJ, EH Bildu eta PSE-EE), eta aurretik ere adostu da Jai Batzordearekin, orain arte egindako bileretan. Udalak herritarren osasuna erdigunean jartzen du, eta azken asteetan izandako kasuen gorakada eta birusaren zabalpena ekiditeko hartu beharreko segurtasun neurriek bateraezina egiten dute jaiak ospatzea. Erabaki tristea izan da, eta, jakina, ez da inork nahi duen egoera, baina jakin behar dugu urte desberdin baten aurrean gaude la eta egoera guztiz ezohikoa bizitzen ari garela. Hori dela eta, erabakia zuhurtasun eta segurtasun irizpideetan oinarrituta hartu da batez ere, gure bizilagunen osasuna bermatzeko.

Berriro ere erantzukizuna eskatzen dugu. Ildo horretan, hartutako erabakia errespetatzea espero dugu, eta ospakizun alternatiborik ez egitea. Ospakizun horiek arrisku larrian jarriko

lukete guztion osasuna, horrelako ekintzek eragiten baitituzte kutsadura gehien. Une honekin, birusak lekuri ez irabaztea eta hedatzen ez jarraitzea da lehentasuna.

Ziur gaude guztion lankidetzarekin aurrera egingo dugula, eta datozen urteetan gure herriko jaiak gozatzeko aukera izango dugula. Jai giroan eta errespetuz ospatzen dira Urnietan San Miel jaiak, eta urtetik urtera gero eta ospe handiagoa hartzen ari dira, udalerriko elkarteek egiten duten etengabeko lanari esker.

Hurrengo urtean Miela ikusteko esperantzaz.

**"UDALAK
HERRITARREN
OSASUNA
ERDIGUNEAN
JARTZEN DU"**